# Har gosetia: progresioa

## Aho hizkuntza:

**trükatü, adierazi, entelegatü.**

- Taldean alkarrizketan parte hartü, bere aldia egürükitzez, besteak behatüz, bere bürüa entelegaraziz.
- Erakasleak kontatzen düan ipuina entelegatü eta arra kontatü.
- Ipuina berriz kontatü lotüra lojikoak eta kronolojia errespetatzez.
- Hiztegi berezia memorizatü.

## Irakurketa:

- Irakurzale egonmoldea garratü: testo eta idatziaren arteko lotüraz ohartü.
- Ipuin ezberdinetako üdüriak identifikatü eta berexi.
- Izenbürüa identifikatü, informazioak txerkatzen jakin.
- Hitzak identifikatü eta memorizatü.
- Hitzen obserbaketa, konparaketa eta analisia garatü.
- Harraren ipuinaren sekuentzien segida memorizatü.
- Erranaldiaren zentzüa errespetatü.
- Hitzen leküa kokatü erranaldian.
- Hitzen arteko lotüra egin: egüna, früta, zenbakia.
- Erranaldi bat eraiki hitzak pausatüz eskerretik esküineala.
- Erranaldia arra irakurri ahozkoa eta idatzizkoaren arteko lotüra eginez.

## Alfabetoa:

- Hizkiak ezagütü eta izentatü.
- Hitzen ortografiaz ohartü, hizkien leküa identifikatü batak

## Mündüaren ezagützа:

- Harretik altxaliliala aldaketaren etapa ezberdinak identifikatü.
- Asteko egünen segida memorizatü.
- Asteko egünak janik diren frütekin erlazionatü.
- Egün bakotxari sinbolo bat eman etxen edo ikastolan direnez adierazteko.
- Asteko egünen egütegia eraiki (gazna boeitarekin).

## Matematika:

- Espazioaren egitüratzen ikasi: irakurketaren zentzüa eskerretik esküinealat.
- Errepikatzen den seriazio baten eraikitzen ikasi.
- Bi ezagütgarri kontütan hartü: kolorea eta kopurua.
- Talde jokületan hasi: bat bateko korrespondenzia egin zenbakien eta laukien artean.
- Bi sartzetako taula bat irakurri eta kokatü.
- Simetria errespetatü ardatz baten arabera.
- Eremü zerratü baten egitüratzea.
- Espazioa egitüratü: norabideak, orientazioa; plano batetan kokatü, lateralizazioa.
- Aitzinean, gibelean artean nozioneak entelegatü.
- Esküin eta esker beresten hasi.
- Bildümak eraiki eta konparatü : haboro, gütiago; güti, hanitx.
- Kopurua ezagütü bere zenbakidün forman.

| | |
|---|---|
| besteen arabera.<br>• Beharri diskriminazioa lantü: hitzetan soinüak ezagütü.<br>• Fonema eta grafemaren arteko lotüra egin.<br>• Silaba bat ediren hitzen hatsarrean ala ürrentzean.<br>• Hitzen hatsarre eta ürrentzea identifikatü.<br>• Hitzen memorizazioa garatü beren itxüren ezagütüz.<br>• Hizkien forma obserbatü. | • Zenbakien segida ezagütü eta beren leküa bata bestearen arabera.<br>• 5 zenbakia ezagütü: gehiketa ezberdinak ediren eta gogoz ikasi.<br>• Gaüzen lüzetarzünak edo loditarzünak konparatü eta ordenatü.<br>• Gehiketa eta kenketa sinpleak egin. |
| **Grafismoa:**<br>• Motrizitate fina garatü.<br>• Grafismo modelo ezberdinak arra egin: erruntak, kakoak, zübuak, spirala, ttikak, marra lüzeak.<br>• Marren zentzüa errespetatü.<br>• Idatz tresna ontsa etxeki.<br>• Lan xahü bat egin. | **Arte plastika:**<br>• Idatziaren funtzioak entelegatü libürü baten eraikitzez.<br>• Bere keinüa materiari egokitü.<br>• Üdüri batetarik abiatüz teknika bat ediren eta erabili (drawing gum), obra bat eraiki etapa ezberdinak errespetatzez.<br>• Frütetan xiloak egin.<br>• Erruntak baliatü « pochoir » gisa harraren itxüratzeko.<br>• Punpurekin harrak eraiki. |